


# Ukrainako gerra

Euskadiko gazteen iritzi-inkesta  
2022ko martxoa




GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

## **Ikerketaren metodologia**


- Unibertsoa:** 15 eta 30 urte bitarteko Euskadiko gazteak
- Lagina:** 4.046 gazte
- Metodologia:** online
- Landa lanaren datak:** 2022ko martxoaren 11-15 bitartean
- Lagin errorea:** %  $\pm$  1,5 (konfiantza-maila % 95,5 eta  $p=q=0,50$  izanik).
- Ikerketaren diseinua eta emaitzen azterketa:** Gazteen Euskal Behatokia.
- Inkesta egiteko aplikazioaren diseinua:** Ingartek Consulting S.L.

Zenbateko interesa duzu Ukrainan gertatzen ari den gerraren  
gaiari? (%)




**Hamar gaztetik bederatzik interes handia edo nahikoa adierazi dute Ukrainan dagoen gerrari buruz.**






Ukrainan gertatzen ari den gerrari buruzko albisteak jarraitzen dituzu? (%)




Hamar gaztetik seik egunero edo ia egunero jarraitzen dituzte gerrari buruzko albisteak; beste % 31,4k maiztasun txikiagorekin jarraitzen ditu.






*Zein komunikabide erabiltzen duzu Ukrainan dagoen gerrari buruzko informazioa jasotzeko? (%)*



**Telebista, prentsa eta Twitter eta Instagram dira gazteek gerrari buruzko albistek jasotzeko erabiltzen dituzten bide nagusiak.**




Ukrainan dagoen gerrari buruz sare sozialen bidez jasotzen duzun informazioa kontrastatzen duzu? (%)



**Gazte gehienek kontrastatzen dute sare sozialen bidez jasotzen duten informazioa: % 28,1ek beti eta beste % 53,3k batzuetan bakarrik.**



Ukrainan dagoen gerrari buruz sare sozialen bidez jasotzen duzun informazioa partekatzen duzu? (%)



Gazteriaren erdia baino gehixeagok (%52) partekatzen du sare sozialetatik jasotzen duen gerrari buruzko informazioa, % 5,7k beti eta beste % 46,3k batzuetan bakarrik. Aitzitik, hamar gaztetik lauk ez dute inoiz informazio hori partekatzen.




Euskadiko gazteen iritzi-inkesta  
2022ko martxoa

Parte hartu duzu Ukrainan dagoen gerrarekin lotutako ondoko ekintzaren batean? (%)




**Dirua, arropa, elikagaiak edo sendagaiak ematea da Ukrainako herritarrei laguntzeko gazteek gehien egin duten ekintza.**






Ezagutzen al duzu [errefuxiatuak@euskadi.eus](mailto:errefuxiatuak@euskadi.eus) helbide elektronikoa? (%)




Hamar gaztetik bik ezagutzen dute Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailak, laguntza eskaintzeko, Euskadiko biztanleriaren esku jarri duen korreo elektronikoa.






Oro har, uste duzu Europar Batasuna ondo jokatzen ari dela Ukrainako gaian? (%)




**Gazte gehienek iritziak, Europar Batasuna ondo jokatzen ari da hartutako erabaki batzuetan baina beste batzuetan ez. Ez dago jarrera garbirik alde edo kontra, baina bost gaztetik batek EB txarto jokatzen ari dela uste du.**

0 eta 10 bitarteko eskalan, Euskadiko gazteek 4,4ko nota ematen diote Europar Batasunari Ukrainaren gerraren kudeaketari






Ukrainatik Europar Batasunera ihes egiten duten persona guztiei errefuxiatu bereziaren estatutua ematearen alde zaude? (%)




Hamar gaztetik zazpi gerratik ihes egiten dutenei errefuxiatu bereziaren estatutua ematearen alde daude.






Errusiari ekonomia- eta finantza-zehapenak ezartzearen alde zaude? (%)




**Gazte gehienak (% 67,4) Errusiari ekonomia- eta finantza-zehapenak ezartzearen alde daude. Aitzitik, % 12,1 kontra dago eta % 20,5ek ez daki edo ez du erantzun nahi.**






Errusiako hegaldi-konpainiei Europako aire-espazioa ixtearen alde zaude?  
(%)




Hamar gaztetik sei (% 59,4) Errusiako hegaldi-konpainiei Europako aire-espazioa ixtearen alde daude. Bestetik, % 16,5 kontra dago eta % 24,2k ez daki edo ez du erantzun nahi.






*Ukrainarentzat armak erostea eta ematea finantzeatzearen alde zaude?*  
(%)




**Ukrainarentzat armak erostea eta ematea finantzatzea da Europar Batasunak hartutako erabakirik eztabaidagarriena. Gazteen % 36 neurri horren kontra dago, % 31 alde dago eta % 33k ez daki edo ez du erantzun nahi.**





Zure ustez, Ukrainako krisiak gehiago batuko du Europar Batasuna? (%)



Gazteen iritzia ia berdin banatzen da honek Europar Batasuna gehiago batuko duela uste dutenen (% 35,7) eta kontrakoa pentsatzen dutenen artean (% 35,3). Gainerako % 28,9k ez daki edo ez du erantzun nahi.



## EMAITZA AIPAGARRIENAK

Errusiako tropek Ukraina inbaditu zuten 2022ko otsailaren 24an. Gazteen Euskal Behatokiak inkesta bat jarri zuen abian martxoaren 11n. Inkesta honetan gai honi buruzko interesa neurtu da eta ordura arte hartutako hainbat neurri baloratu dira, besteak beste.

Euskadiko gazteek gerraren gaiarekiko interesa dute (% 86,8), eta, izan ere, gehienek egunero edo ia egunero jarraitzen dituzte gatazkaren bilakaerari buruzko berriak (% 61,2).

Telebista da gai honi buruz informatzeko gehien erabiltzen duten komunikabidea (gazteen % 78,0k albisteak telebistaz jarraitzen ditu); ondoren prentsa (% 51,2), Twitter (% 40,1) eta Instagram (% 40,0) daude. Gainera, gazte gehienek diote gai horri buruz sare sozialetatik jasotzen dituzten albisteak kontrastatzen dituztela (% 28,1ek beti eta % 53,3k batzuetan bakarrik).

Gazteen % 34,9k Ukrainatik ihesi doazen errefuxiatuei laguntzeko dirua, arropa, elikagaiak edo sendagaiak eman dituzte, % 17,1ek gerra amaitzeko edota Ukrainan giza-eskubideak errespetatzeko eskaeraren bat sinatu dute eta % 9,9k Ukrainako gerraren aurkako manifestazio edo mobilizazioetan parte hartu dute. Gainera, gazteen % 20,1ek ezagutzen du errefuxiatuak@euskadi.eus posta elektronikoa, Eusko Jaurlaritzak gaitu duena Ukrainako errefuxiatuei lagundu nahi dien edonork izena eman dezan.



## Europar Batasunaren zeregina

Europar Batasunak gerra honetan izandako jardueraren balorazioari dagokionez, gazte gehienek (% 58,1) uste dute alderdi batzuetan ondo eta beste batzuetan gaizki jokatzen ari dela, eta Europar Batasunari gatazka honen kudeaketan ematen dioten batez besteko puntuazioa 4,4koa da 0 eta 10 arteko eskalan.

Zehazkiago, Euskadiko gazteen % 72,3 ados dago Ukrainatik Europar Batasunera ihes egiten duten pertsona guztiei errefuxiatu bereziaren estatutua ematearekin, % 67,4 Errusiari ekonomia- eta finantza-zehapenak ezartzearen alde dago, eta % 59,4 ados Errusiako hegaldi-konpainiei Europako aire-espazioa ixtearekin. Ukrainarentzat armak erostea eta ematea finantzatzaren kasuan, aldiz, gazteen iritziak oso banatuta daude, % 31 ados dago, % 36 kontra dago eta gainerako % 33ak ez daki edo ez du erantzun.

Azkenik, gazteek ez dute iritzi garbirik gatazka horrek Europar Batasuna gehiago batuko ote duen galdetuta: % 35,7k baietz uste du, % 35,3k ezetz uste du, eta gainerako % 28,9k ez daki edo ez du erantzun.

